

Liburuaren Legea eztabaidatuko dute gaur Espainiako Kongresuan

**Liburutegietako maileguen diru saria eta liburu salneurri finkoa
arautuko ditu, besteak beste**

Agentziak. Madril.

Irakurketaren, Liburuaren eta Liburutegien Lege egitasmoari egindako 41 zuzenketa proposamen eztabaidatuko dituzte gaur Espainiako Kongresuko Kultura batzordean. Zuzenketa gehienak eskudantzien ingurukoak izango dira, Antonio Louro talde sozialistako bozeramaileak azaldu duenez, eta eztabaidatik kanpo geratuko dira bi ardatz nagusiak: liburu salneurri finkoa eta liburutegietako maileguen gaineko diru saria. Okerrik ez bada, ekainean onartuko dute Irakurketaren, Liburuaren eta Liburutegien Legea. Legea onartu eta indarrean jartzen denean, salneurri finko eta aldaezina izango dute liburu guztiek, eskoletako testuliburuek izan ezik. Bestalde, egindako liburu mailegu bakoitzeko diru sari bat ordaindu beharko dituzte liburutegiek, egileari dagozkion eskubideen ordainetan.

Liburuak maileguan uzteagatik ordaindu beharra dago Europako Batasunean. Europako Auzitegiak eguneko 300.000 euroko isuna ezarri dio Espainiari, iazko urriaz geroztik, liburutegietako maileguen ordainketa arautu gabe duen artean.

IDAZLE ETA ARTISTA ASKO, AURKA

Idazle, artista eta intelektual asko liburutegietako maileguen ordainaren aurka agertu dira. Egindako liburu mailegu bakoitzagatik ordaindu beharra liburutegientzako zama astunegia izango dela diote legearen aurkariak, eta, gainera, bide horrek ez duela irakurzaletasuna sustatzen lagunduko.

Europako Batasunak Espainia maileguen ordaina arautzera derrigortuko duela ikusirik, liburutegietako maileguen gaineko diru sariaren ordainaren kontuak bulego publiko baten bidez kudea daitezen eskatu dute legearen aurkarietako batzuek.

Liburu bakoitzak leku guztietan salneurri bera izatea arautzeari abegi ona egin diote, oro har, hala editoreek nola liburu saltzaileek. Legeak beste saltoki batzuen konkurrentziari aurre egiten lagunduko dielakoan daude liburu dendetako saltzaileak